

**ESKOLAKO OHARRAK****MATRIKULAZIO EPEA**

Hurrengo urtarrilaren 18tik, astelehena, 29rarte, ostirala (biak barne), 2021/2022 ikasturterako ikasleak matrikulatzeko epea irekita egongo da.

Aurten, COVID19a dela eta, gure ohiko bilera formatua aldatu beharrean aurkitu gara. Informazioa zuen esku jartzeko, gure proiektuaren berri emateko eta eduki ditzakezuen zalantzak edota kezkek argitzeko bi bilera antolatu ditugu Udaletxean, beti ere segurtasun neurri guztiak mantenduz. **Bestalde, eskola ikusi edo informazio gehiago nahiko bazenute, eskolako Zuzendaritzarekin hitzordua eskatu eta eskola ezaqutzeko bisita gidatu bat eskainiko zaizue.**

Bilera eguna: Urtarrilaren 14a, osteguna

Euskarazko bileraren ordua: 17:00etan.

Gaztelerako bileraren ordua: 18:00etan.

Lekua: Udaletxeko Pleno Aretoa

MATRIKULA EGITEKO

Lekua: Elizalde HLHiko IDAZKARITZA (aldez aurretik hitzordua 943490193 telefono zenbakira deituz)

Ordutegia: Goizean 9:00etatik 13:30era
Arratsaldean 14:45etatik 16:30era
(Beste orduren batean behar izanez gero, deitu)

Beharrezko dokumentazioa: Familia-liburua
Nortasun-agiriak
(aita, ama edo legezko tutorearena)
Udalak emandako erroldatze agiria
(familia unitatea)

matrikulazio
epea zabalik



OIARTZUNGO IHOTIK KARTA JOLASA

SALMENTA PUNTUAK

- Abaraxka Ludoteka
- Dixidu diseinu grafikoa
- Elizalde Herri Eskola
- Haurtzaro Ikastola
- Intxixu AEK euskaltegia
- Labore Oarso
- Oiartzun Irratia
- Ehuntze espazioa
- Txispum aretoa (Hondarribia)

Haremanetarako: abaraxka.oartzun@gmail.com



15 €

Intxixuak, basandreak, sorginak, ote-gizona, zomorrozinko, suzko akerra, sua, kuestaziyua, auzoak... batu ditugu karta jolas batean.

Kutxa eder batean aurkeztuta, liburuak + 56 kartak osatzen dute jolas hau.

Oiartzunren etxe guztietan egon beharreko jolasa!



ABARAXKA UDAL LUDOTEKA
2021 URTARRILA



**ABARAXKA UDAL LUDOTEKA
ALDAKETAKIN DATOR**

2021 URTARRILA

➔ **IZEN EMATE BERRIA HH3 mailatik aurrera!!**

➔ **DENAK EGUNERO etortzeko aukera.**

Izen ematea online izango da,
www.gazteoiartzun.net
blogean.

➔ Larunbata honetan, urtarrilak 9, *Pony itsaslabarrean* filma.

➔ Urtarrilean **Truke proposamena**. Abaraxkan materiala utzi urtarrilak 7-16 bitartean. Gauza berriak hartu urtarrilak 30ean.

Edozein zalantza abaraxka.oartzun@gmail.com edo eta 645 005 496.



TRUKEA (Soilik ongi dauden gauzak)



Jostailuak...



Arropa,
belarritakoak,
pultserak....



Liburuak,
errebistak,
ipuinak...



Urtarrilak 30,
16:30-19:00

Abaraxkan hartu
behar duzuna

Ekarri nahi duzuna
urtarrilak 7-16
bitarte.
Berrogeialdian
jasoko ditugu



Zinea: URTARRILAK 9
Abaraxkan 16:30


PONYO

ITSAS LABARREAN

Sinopsia: Sosuke itsasora begira dagoen labar batean bizi da. Goiz batean, burua marmeladazko pote batean sartuta duen koloretako arrain batekin egingo du topo. Sosukek askatzen lagunduko dio eta elkarren arteko lilura sortuko da. Arrainaren aitak, berarekin itsasora itzultzera behartuko du.

Ponyo koloretako arrainak haur izan nahi du eta ihes egingo du.

Kaosa nagusituko da eta Ponyoren ahizpak maretan erraldoi bihurtuko dira Sosukeren itzulera eragiteko. Ur azpiko munduaren eromenak Sosuke nahastuko du



Laguntasuna, ardura,
ingurumena... lantzen duen filma



